

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2022KO EKAINA

Euskal AEko industria-jarduerak % 10,1eko igoera izan du 2022ko ekainean


2022ko lehen sei hilabeteetako metatuan, industria-produkzioaren indizeak % 7,9ko igoera izan du, ekipo-ondasunek (+% 14,6) eta energiak (+% 13,5) bultzatuta

2022ko ekainean, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa 2021eko hilabete berekoa baino % 10,1 handiagoa izan da lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Eustatek landutako datuen arabera.

Ekaina aurreko hilabetearekin (2022ko maiatzarekin) alderatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-jarduerak % 0,5eko igoera izan du, urtaroen eragina zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2022ko ekaineko indizeak 2021eko ekaineko indizetik izan duen bilakaera positiboa izan da industria-sektore handi guztietan. Adibidez, *Energiaren* sektorean (energia elektrikoaren produkzioa eta hornidura eta petrolioaren finketa barne), produkzioak % 24,5eko igoera izan du. Bestalde, *ekipo-ondasunek* (ibilgailu motordunen fabrikazioa, lokomotorren eta trenbide-materialaren eraikuntza eta eraikuntza

aeronautikoa edo ontzi-eraikuntza barne) % 17,5eko igoera izan dute, eta *Bitarteko ondasunek*, berriz, % 4,2koa. Azken sektore horretan, metalurgia-jarduerak, produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa daude sartuta.

Kontsumo-ondasunek, bestalde, urtetik urterako % 1,8ko igoera izan dute *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* % 4,3ko igoerari esker, *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 7,6ko beherakada izan baitute. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* epigrafean, elikagaiak prozesatu eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketa- eta higiene-produktuen fabrikazioa eta jantzigintza sartzen dira. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* sektorean bildutako jardueren artean, berriz, altzarien eta etxeko aparatuen fabrikazioa dago.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Ekaina 2022

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	10,1	7,9	0,5
Araba/Álava	13,9	7,6	-2,4
Bizkaia	11,4	9,3	1,9
Gipuzkoa	6,9	6,6	0,8
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	1,8	6,0	-1,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-7,6	-1,2	-5,4
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	4,3	7,9	-0,3
Ekipo-ondasunak	17,5	14,6	0,3
Bitarteko ondasunak	4,2	2,7	-0,4
Energia	24,5	13,5	6,4

(p) Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtamiletik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2022ko Abuztuaren 2a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziago batean, euskal industrian pisurik handiena duten sektoreen artean, 2022ko ekainean urtetik urterako igoerarik handiena izan dutenak honako hauek izan dira: *Garraio-materiala* (% 27,0), *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 23,5) eta *Makineria eta ekipoa* (% 14,6). Sektore garrantzitsu horietako ezeinek ez du beherakadarik izan produkzioan. Nolanahi ere, igoerarik txikiena izan duen sektorea *Elikagaien industriak, edariak eta tabakoa* izan da, % 2,2ko igoerarekin.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Ekaina 2022

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	2,2
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	2,4
Kautxua eta plastikoak	3,7
Metalurgia eta produktu metalikoak	6,0
Materiala eta tresna elektrikoak	10,7
Makineria eta tresneria	14,6
Garraio-materiala	27,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	23,5

(p) Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1) Euskal AEko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2022ko Abuztuaren 2a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Industria-produkzioaren indizearen urtetik urterako bilakaera positiboa izan da ekainean hiru Lurralde Historikoetan: Araban, % 13,9ko igoera izan da, Bizkaian % 11,4koa eta Gipuzkoan, berriz, %6,9koa.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, ekaineko indizea laginaren % **90,36ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62